

1.-ELKARBIZITZA ZIRKULUAK.

Elkarbizitza zirkuluak gelako eta eskolako **elkarbizitza hobetzarren** ikasleriaren **partaidetza aktiboa** sustatzen duten egitura egonkorak dira. Euren funtzioa gelan eta eskolan elkarbizitzen ari diren ikasleei harremanekin lotutako alderdietan laguntzea da.

Egitura mota hau **berdinen arteko laguntzan** oinarrituta dago, pertsona guztiek eman dezaketena, are gehiago jokaera solidarioa eta enpatia errazten dituen giroa bultzatzen denean.

Gainera, gainontzekoak laguntzeko egitura batean parte hartzeak hartan partaide diren pertsona guztien **hazkunde morala** sustatzen du, eta martxan jartzen den ikastetxe eta gelako giroan oso eragin positiboa dauka.

Elkarbizitza zirkuluaren osaketa ikastetxearen ezaugarrien arabera izango da. Ikasle kopurua txikiegia ez izatea komeni da, baina ezta gela bateko ikasle kopurua baino handiagoa ere. Elkarbizitza zirkulu bat gela bakoitzeko lau-bost ikaslek osatzen dute, eta talde **heterogeneoa** izatea zaindu behar dugu (neskak eta mutilak, jatorria, hizkuntza, trebetasun sozialak ...). Talde heterogeneoak eragite eremu zabalagoa bermatzen du, eta sexuaren aldaera kontutan hartu behar da beharrezkoa ikusten den kasutan.

Elkarbizitza zirkuluak egituraren **helburuak**:

1. Eskola eremuan ematen diren pertsonen arteko gatazkekiko lankidetzatza, ezagupena eta irtenbideen bilaketa sustatzea.
2. Ikastetxeetako elkarbizitza hobetzea.
3. Ikasleriaren arteko tratatu txarren kasuak murriztea.
4. Eskolan gertatzen diren gatazketan ikasleen partaidetza sustatzea.
5. Hezitzaile eta ikasleen arteko komunikazio eta elkar-ezagutzarako bideak sortzea.
6. Gatazkei aurre egiteko modu biolentoak lantzeko berariazko eskola-antolaketa eratzea.
7. Hiritartasunaren baloreak bultzatu erantzukizun partekatuaren bitartez eta komunitatearen klimaren hobekuntzan inplikatur.

Egitura hau martxan jartzearen ondorioz hurrengo onuretako batzuk agertu behar dira lirateke eskolan:

- Elkarbizitza hobetzea.
- Gatazken intentsitatearen gutxiagotzea.
- Neurri zigortzaileen erabileraren murrizketa.
- Esperientzian parte hartu duten ikasle eta irakasleen autoestimua hobekuntza.
- Partaidetzaren areagotzea eskolan.
- Komunitateko kideentzako segurtasun handiagoa.
- Ikasle eta familien asebetetze maila handitzea eskolak pertsonetikiko erakusten duen inplikazio eta interesagatik.
- Eskolarekiko esker ona ingurunean eta auzoan bere hobekuntzarengatik.

Beste alde batetik, elkarbizitza zirkuluen **funtzioak** elkarbizitzari eragiten dioten egoerak behatu eta antzematen ardaizen dira, egoera horiek bizi dituzten ikasleak babestuko dituen laguntza-sarea sortuz berdinen arteko harremanak errazten dituzten baldintzak sustatzeko:

- Ikasle berriei harrera egin.
- Harreman sozialetarako zailtasun gehiago dituzten ikasleak lagundu.
- Berdinen arteko balizko tratu txarren edozein egoera behatu eta horri buruzko informazioa eman.
- Tratu txarren biktima izan daitezkeen ikasleak babesteko estrategiak diseinatu eta hauei laguntzen eta ikasle erasotzaileak behatu eta eusten parte hartu.
- Gelako elkarbizitza hobetuko duten ekintzak martxan jarri.
- Egindako lana ebaluatu.

1.1.-BERDINEN ARTEKO LAGUNTZA PROGRAMA BAT GAUZATZEKO BALDINTZAK: ELKARBIZITZA ZIRKULUAK.

Torrego eta beste batzuk (2000) esaten dutenaren arabera, eskola eta institutuetan berdinen arteko sistemak abiatzeko eman behar diren aurretiko pausu berdinak garatu behar dira; beste batzuen artean, hauek izan beharko lirateke:

- Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren onarpena.
- Proiektuaren pertsona arduraduna izendatu.
- Zerbitzuan zuzenean lan egingo duen eta eskolako bizitzan errotuko duen irakasle-talde bat.
- Proiektua familiei aurkeztu.
- Ikasleriaren partaidetza sustatu.
- Hasierako prestakuntza egiteko eta ondorengo bilerak egiteko ordutegia prestatu.
- Maiztasunez elkartu ahal izateko espazio fisiko bat egokitu.
- ...

Ikastetxe bakoitzak, bere ezaugarri, behar, lan erritmo e.a. arabera, pausu hauek nola eta zein ordenan ematen joan erabakiko du.

Elkarbizitza zirkuluetako ikasleek egingo duten lanak ikastetxeko irakasleek koordinatua, lagundua, tutorizatua eta gainbegiratua egon behar du. Ikastetxe bakoitzean irakasle-talde batek lan hauek guztiak eskola-ordutegiaren barruan egin ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, eta ikastetxearen antolaketaren arabera izango dira. Elkarbizitza Behatokia egongo balitz, ordea, oso egokia izango litzateke elkarbizitza zirkuluen abiatzea, koordinazioa, akonpainamendua, gainbegiratzea eta ebaluazioa egiteko.

1.2.-ELKARBIZITZA ZIRKULUEN SORRERA-PROZESUA.

Ohikoena ikasturtea ikasle berrien harrera eta taldearen kohesioa lantzen hastea da. Hau izango litzateke momentua ere gelako ordezkariak aukeratzeko eta ikasleriaren partaidetzako beste egituretarako ikasleen aukeraketarako.

1. SENTSIBILIZAZIOA.

Horretarako garrantzitsua da ikasleen sentsibilizazioa (tutoretza saio batean, gutxienez) elkarbizitza positiboaren eta tratu onaren inguruan, harreman on eta txarrengan eragiten duten faktoreen inguruko hausnarketa egiten lagunduz eta ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko konpromisoarekiko alde zuzeneko jarrera positiboan jarritz.

Tutoretzako saio berezi hau (edo hauek) irakasle tutoreak garatuko du elkarbizitza zirkuluetako irakasle koordinatzaile baten laguntzaz.

2. AUKERAKETA.

Aukeraketa prozesua gela bakoitzean ikasle boluntarioen zerrenda dugunean hasten da. Argi utzi behar da elkarbizitza zirkuluak laguntza-taldea direla, ez salatariena. Zirkuluak martxan jarri ondoren argi geratzen da ez direla txibatoak, baina oso argi utzi behar den alderdia da.

Esperientziak erakusten du neska boluntario gehiago egoten dela mutilak baino, baina enpatia neska eta mutilengan maila berdinean garatzen lagundu behar den trebetasuna da.

3. PRESTAKUNTZA.

Elkarbizitza zirkuluetako partaideen prestakuntzak euren funtzioak eraginkortasun handienarekin bete ahal izateko behar dituzten trebetasunak jaso behar ditu. Prestakuntza ez da alde zuzeneko ezinbesteko baldintza, baina garrantzitsua da prestakuntza hau zirkuluak abian jartzen direnean programatzea (lehenengo hiruhilabetea).

Ikasle laguntzaileen prestakuntzarako modu ezberdinak daude, hauek dira:

- **Edukiak.**

Eduki ohikoenek ondorengo gai hauei egiten diete aipamen:

- Talde kohesioa.
- Ikasle laguntzaileen funtzio, trebetasun eta gaitasunak.
- Gatazken ulermena.
- Berdinen arteko laguntzarako estrategiak.
- Elkarbizitza zirkuluen antolaketa eta funtzionamendua.
- ...

Helburua izango da ikaskideengan sufrimendu egoerak behatu eta antzematea, eta horretarako harreman sozialak behatzeko gakoak eman behar dizkiegu. Euren berauek gatazkei modu positiboan aurre egiteko moduaren eredu izan daitezela bultzatu behar dugu, eta hori nola egiten den erakutsi behar diegu. Gainera, euren akonpainamendu funtzioa agerian jarriko dugu, laguntza-harremanean sakontasunez entrenatuz.

4. MARTXAN JARTZEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

Elkarbizitza zirkuluei egiten zaien akonpainamendua martxan jartzea bezain garrantzitsua da ia, eta akonpainamendu hau hobea eta eraginkorragoa da irakasle multzo batek modu konpartituan egiten duenean. Gainera, talde-lanak koordinatzen duten ikasle taldeak bere gain hartu behar duen egoeren analisia aberasten du, sor daitezkeen gatazketan libre egon ahal izateko aukerak bidertzen ditu eta ikasleei erreferente ezberdinak eskaintzen zaizkie laguntza eskatu behar dutenerako.

Bestalde, ez da irakasle tutoreen taldearekin paraleloan lan egiten duen egitura paralelo bat sortu behar, baizik eta tutoreek izan behar dute gelan gertatzen denerako erreferente nagusi, elkarbizitzarekin zein beste gaiekin lotuta egon. Elkarbizitza zirkuluen talde koordinatzaileak tutoretza saioetan egiten den egitura osagarri gisa egingo du lan, tutoretza lana aberastuz aldi berean.

Elkarbizitza Zirkuluek euren lana maiztasun batez ebaluatu behar dute.

Azken ebaluazioak formalagoa izan beharko du, eta zirkuluetan inplikaturako agente guztien iritzia jasotzea, familiak barne.

ELKARBIZITZA ZIRKULUEN EBALUAZIOA					
Elkarbizitza Zirkuluak.	Irakasle koordinatzaileak.	Irakasle tutoreak.	Gelako taldea.	Ikasketa Burutza / Orientazioa	Familiak.
<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio prozesua. • Prestakuntza ekintzak. • Euren funtzioekiko konpromiso maila. • Ekintzen eraginkortasuna. • Elkarbizitzaren hobekuntzan izandako eragina • Bileren eraginkortasun eta maiztasuna. <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren asebetetzea egindako lanarekiko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio eta hautaketa prozesua. • Prestakuntza ekintzak. • Ikasleriaren konpromisoa euren funtzioekiko. • Elkarbizitza Zirkuluen ekintzen eraginkortasuna. • Egindako ekintza kopurua eta mota. • Elkarbizitzaren hobekuntzan izandako eragina. • Tutore, Ikasketa Buru eta orientatzailearekiko koordinazioa. • Talde koordinatzailearen funtzionamendua. • Norberaren asebetetzea egindako lanarekiko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio eta hautaketa prozesua. • Ikasleriaren konpromisoa euren funtzioekiko. • Elkarbizitza Zirkuluen ekintzen eraginkortasuna. • Elkarbizitzaren hobekuntzan izandako eragina. • Elkarbizitza Zirkuluen talde koordinatzailearekiko koordinazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio eta hautaketa prozesua. • Elkarbizitza Zirkuluen ekintzen eraginkortasuna. • Elkarbizitzaren hobekuntzan izandako eragina. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarbizitza Zirkuluen konpromiso maila. • Elkarbizitza Zirkuluen lanaren eraginkortasuna. • Elkarbizitzaren hobekuntzan izandako eragina. • Elkarbizitza Zirkuluen talde koordinatzailearekiko koordinazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarbizitza Zirkuluen lanaren eraginkortasuna. • Elkarbizitzaren hobekuntzan izandako eragina. • Talde koordinatzailearen eta tutoreen aldetik jasotako informazioa.